

Loretik dator eta dihoa mundua

ERLE FESTA hemen da, loreen peskizan. Aurtan, goiz-goizetik datorkigu loretza. Orintxe dugu udaberriko ekinoztoa, luzera bereko gaua eta argia dituen eguna, eta lore erakusketa izugarria da.

Lorea eta erlea gauza bera dira, ezta? Etxekoak, biak ala biak beharrezkoak. Etxekoren bat hiltzean, erleei, hilobia argitzeko argizari gehiago egiteko eskatzen zaie, eta eultzean, oihal beltz bat ipintzen da.

Loreak, udaberriak, aitortza merezi du. Eskerrak loreei, bestela ez ginateke. Inauteetatik hasi eta uda atariko egunik luzeenetara arteko ospakizunek hori diote: gora loreak. Lizarrak, elorri zuriak, erramuak, palmak, arrosak, garia... adarrak edota sortatxoak etxeari, baratzeari, soroari, belardiari, sagardiari eta, zenbait ospakizunetan, baita geuri ere, soinean, buruan, dantzetan... Naturari egindako eskaintza dena, opor usaineko jai bihurtu dugu, edo, okerragoa dena, erlijio.

Loretik gara, bai, dena, garena dena. Onena eta txarrena. On ugariak aldera utzita, txarretik ere nahi adina ematen digute loreek eta beren landareek.

Bihotza bere onetik ateratzeko gai da landare asko, gontzetatik jauzarazteraino.

Baina bere onetik ateratako bihotza gontzetara ekarri ere egin



JOAQUIM ALVES GASPAS-CC BY SA

Heriotzorria, *Nerium oleander*, dosiaren arabera kalte bezala mesede egin diezagukeen landare ugarietako bat.

dezakete landare horiek berak. Txarrena eta onena. Kuku-praka (*Digitalis purpurea*), mugeta (*Convallaria majallis*), antiaris tropikala (*Antiaris toxicaria*), elefante bat hankaz gora jartzeko gai den izerdia duen *Acokanthera schimperi*, geziak pozoitzeko gaia kentzen zaion *Strophanthus amboensis*, *Asclepias* generokoak, *Calotropis gigantea*, astatipulak (*Hyacinthoides hispanica*, *Drimys maritima*...), *Bryophyllum daigremontianum* madagaskartarra...

Dosiaren arabera, kalte bezala mesede egin diezagukeen landare asko dago. Tartean, izenak nahikoa adierazten duen heriotzorria (*Nerium oleander*); merezitakoa izango al du! Maiz ikusten da lorategi eta etxe tarte batez ere berrietan. Eskerrak haren izenaren berririk ez duen jendeak... Haren izanaren berririk...

Ni erleetara nihoa, argizaritara. ■





- Elikagai ekologikoak
- Usurbilgo baserrietako produktuak
- Sagardogintzarako tresneria
- Tratamendu naturalak
- Onttoen haziak...
- Banaketa zerbitzua

DENDAREN ORDUTEGIA
Astelehenetik-Ostiralerara: 9etatik-13tara eta 16tatik-19.30tara
Larunbatetan: 9etatik-13tara
Tel/Fax: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com